

FRANTSESA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Clotilde Caro Herrera	Maila	LB1	Ikasturtea	2020-21
-----------	-----------------------	-------	-----	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Hautazko irakasgaia. 4 ordu astean. Eoidnako B1ko azterketara aurkezteko aukera

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK									
1) Hizkuntza komunikazioa.	0	1	2	3	4	5	6			
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.										
3)Gaitasun digitala	0	1	2	3	4	5	6			
4) Ikasten ikastea	0	1	2	3	4	5	6			
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	0	1	2	3	4	5	6			
6) Ekimena eta ekintzailtza.	0	1	2	3	4	5	6			
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	0	1	2	3	4	5	6			

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

1. MULTZOA.–AHOZKO TESTUEN ULERMENA
2. MULTZOA.–AHOZKO TESTUEN EKOIZPENA: ADIERAZPENA ETA ELKARRERAGINA
3. MULTZOA.–TESTU IDATZIEN ULERMENA
4. MULTZOA.–TESTU IDATZIEN EKOIZPENA: ADIERAZPENA ETA ELKARRERAGINA

Skolae: Frantses departamentuko irakasleak ez gara tutoreak, baina gure ekarpena egiten dugu hezkidetza gaiari.

- Liburuak aztertu ditugu edukiak baloratzeko. Batxilergo liburu berriak aukeratu

ditugu genero ikuspuntua kontutan hartuta.

- Hizkuntza inklusiboa: Frantsesez hitz egiterakoan bi generoak aipatzen ditugu
- Adibideak ematen ditugunean maskulinoa eta femeninoa erabiltzen ditugu aditzetan.
- Edukietan: emakume zientzialariak, lanbideak ...

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[Bigarren atzerriko hizkuntza LB1](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
12	Unité 0: "Connaissez-vous la France?"	22	Unité 3: "Citoyens du monde"	22	Unité 5: "La vie en vert"
15	Unité 1: "L'air du temps"	22	Unité 4: "Pour l'amour de l'art"	22	Unité 6: "Au boulot"
15	Unité 2: "À la une"				

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

IK/KI egiturak erabiliko ditugu

Metodologiari dagokionez honako puntuak azpimarratu behar ditugu:

- Metodologia komunikatibo bat erabili behar dugu klaseetan, hau da, ikasleek ikasi behar dute frantsesez komunikatzen. Hori lortzeko saiatuko gara frantsesa ahalik eta gehien erabiltzen gure klaseetan.

Baliabideak honakoak izanen dira:

Testu liburua: "Passerelle 2" liburua eta ariketa liburua

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta BALIABIDEAK / ERREKUPERAZIO SISTEMA Kalifikazio irizpideak

1, 2 eta 3. Egoeretan

Ebaluaketako nota jartzeko hiru atal hartuko dira kontuan: Trebetasun linguistikoak, jarrera eta azterketak.

1.- Trebetasun linguistikoak entzumena, ahozmena irakurmena eta idazmena) neurtzeko egingo diren froga guztien batezbestekoak notaren %40 balioko du. Koadernoan 4 atal izanen dira (CO, CE, EO, EE) eta atal bakoitzak % 10 balioko du.

2.- Klaseko portaera eta jarrerak %20 balioko du. Gela guztietan interesak eta mailak ezberdinak daudenez, lana eta jarrera kontutan hartuko dira.

Jarrera: Ikaskideak, irakasgaia, materiala eta irakaslea errespetatu behar dira.

Hitz egitea: Klasean ixiltasuna izatea derrigorrezkoa da Norbaiti ixilzeko esaten bazaio , kasu egin behar du. Ixilik eta entzuten egon behar gara irakaslea azalpenak ematen dituen bitartean, ikaskide bat zerbait esaten ari den bitartean edo zerbait zuzentzen ari garen bitartean. Ez dugu onartuko aitzaki bezala besteak ere hitz egiten ari direla esatea. Bakoitzak bere ardura hartzen badu, berehala egongo gara denak ixilik eta ikasteko prest.

Lana: Lan egiteko materiala ekarri behar da. Etxean eta klasean lan egitea beharrezkoa da gainditzeko.

Norbaitek ez badu errespetua erakusten edo ez badu lanik egiten, falta larritzat hartuko da eta atal hau ez du gaindituko.

Klasean maila eta interes ezberdinak daudenez urte hasieran ikusiko da zein den ikaslearen helburua bere edukiak eta jarduerak egokitzeko. Frantzia egon direnek helburu bat aukeratu beharko dute denbora ez galtzeko. (idatzizkoa landu, B1 edo B2 ...)

3.- Azterketak: Azterketa bakarra egingo dugu hiruhilabete bakoitzean eta notaren %40 balioko du. Beste notekin batezbestekoa egin ahal izateko gutxienez 4 bat atera behar da atal honetan.

Azken azterketa gainditzen duenak automatikoki aurreko guztia gainditzen du.

Iaz frantsesa gainditu ez zutenei irizpide bera aplikatuko zaie, hau da, aurtengo lehendabiziko ebaluaketa gainditzen badute, aurreko urtekoa ere gaindituko dute.

Kalifikatzeko irizpide hauek maila guztietan erabiliko dira eta ebaluazioa gainditzeko 5 bat atera beharko dute batezbesteko nota bezala. Hortik aurrera, 5.5 ateratzen badute seira biriliduko dugu eta horrela egingo dugu beste nota guzietan

4. Egoeran

Lana (puntualitatea, txukuntasuna, lana. : % 30

Ariketak (idazlanak, entzumenak, irakurmenak, gramatikako ariketak): %50

Azterketa: %20

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Nota jartzeko tresna batzuk erabiliko ditugu: eguneroko behaketa, lanak (idazlanak, ariketa koadernoak, ahozko probak, ulermen probak, idatzizko probak) eta azterketak.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Gutxieneoak

Objectifs communicatifs se présenter, poser des questions, décrire quelqu'un, exprimer l'opposition et la conséquence, demander et confirmer des informations, , raconter la vie de quelqu'un raconter des événements passés, exprimer la simultanéité, exprimer l'opinion et les sentiments, Exprimer l'obligation et l'interdiction, son inquiétude, rassurer, demander ou donner sa

permission, faire une présentation orale, exprimer le doute, la crainte, la volonté, le but, la finalité Exprimer un souhait , son accord ou son désaccord, la cause et la conséquence, exprimer l'hypothèse, l'obligation et l'interdiction

Grammaire Le passé composé et l'imparfait, le plus-que parfait, les adverbes de fréquence,, les pronoms personnels, interrogatifs, relatifs, indéfinis Le futur simple, le conditionnel, les pronoms démonstratifs, le discours rapporté, les pronoms possessifs, le conditionnel passé, , les pronoms « y » et « en ». Le subjonctif, , ne ...que, le superlatif, bien que , afin que , le pronom relatif dont

Lexique: Les adjectifs pour décrire le physique et le caractère, , les études et les professions, le cyberspace, les médias les groupes sociaux, , les migrations, les pays, les origines, les langues, le monde de l'art, les livres. L'environnement et sa préservation, les espèces menacées, le monde du travail, les offres d'emploi

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Errekuperazioa

Ebaluaketa bakoitza bukatu eta gero errekeraketa azterketa bat egingo dugu eta azken azterketa gainditzen duenak automatikoki aurreko guztia gainditzen du.

Hirugarren ebaluaketan azterketa eta trebetasunak gainditu ez dutenek atal hauek berreskuratzeko aukera izango dute nahikotasun frogataz. Horretarako irakasleak eskatutako edo suspenditutako lanak azterketa egunean aurkeztu behar dituzte eta azterketa bat egin. Portaera ezin izango da berreskuratu jarraiko prozesua delako.

Ez ohiko azterketan portaera ez da kontuan hartzen. Bakarrik azterketa bat egingo da hiztegia eta gramatika edukiekin.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ez dago frantsesan

Pamplona, septiembrea 2020